



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruñean, 1999ko azaroaren 24an

23 ZK.

### A U R K I B I D E A

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak, Mozioak eta Adierazpen Politikoak:**

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da eskola-liburutegiak berritu eta egokitzeko plan bat igor dezan, «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentuko Taldeak aurkeztua (3. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Komunitateko ingurugiroaren egoerari buruzko informazio orokorra igor dezan, «Nafarroako Demokraten Elkargunea» Parlamentuko Taldeak aurkeztua (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da kontrolak egin ditzan tatuajeak egiten diren lekuetan, «Nafarroako Demokraten Elkargunea» Parlamentuko Taldeak aurkeztua (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako aurrezki kutxen zuzendaritza organoei buruzko foru lege proiektu bat igor dezan, «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentuko Taldeak aurkeztua (6. or.).
- Mendebaldeko Saharan 2000 urterako aurreikusita dagoen erreferendumaren aldeko adierazpen politikoa. Bozeramaileen Batzarrak berretsia (7. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

- Gutxienez % 33ko minosbaliotasuna eta gehienez % 65koa dutenentzako dauden baliabide eta hezkuntza programei buruzko galdera, Isabel Arbonies Bermejo foru parlamentario andreak egina (9. or.).
- Gaixotasun zeliakoari buruzko galdera, Isabel Arbonies Bermejo foru parlamentario andreak egina (10. or.).
- Kirol-zelaia dauden lurralde Corellako Udalarri lagatzeari buruzko galdera, «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentuko Taldeak egina (11. or.).
- Zenbait ikastetxe publikotako leku beharrari buruzko galdera, Juan Antonio Andión Gastón foru parlamentario jaunak egina (12. or.).
- Erresonantzia magnetikoa egiteko itxaron zerrendei buruzko galdera, Elena Torres Miranda foru parlamentario andreak egina (12. or.).

- Nafarroako Administrazio Auzitegian aurkeztutako espediente kopuruari buruzko galdera, Jorge Mori Igoa foru parlamentario jaunak egina (13. or.).
- Toki administrazio bitarteko idazkari eta kontu-hartzaileei buruzko galdera, Jorge Mori Igoa foru parlamentario jaunak egina (13. or.).
- Toki entitateen administrazio mapari buruzko galdera, Jorge Mori Igoa foru parlamentario jaunak egina (14. or.).
- Toki entitateek gazteri programak aurrera eramateari buruzko galdera, Carolina Castillejo Hernández foru parlamentario andreak egina (14. or.).
- Gazteei argibideak emateko bulegoei buruzko galdera, Carolina Castillejo Hernández foru parlamentario andreak egina (15. or.).
- Gazteriarentzako Departamentuarterko Batzordearen eragingarritasunari buruzko galdera, Carolina Castillejo Hernández foru parlamentario andreak egina (15. or.).

**G SAILA:****Txostenak, Deialdiak, eta Parlamentuko Informazioa:**

- Nazioarteko Elkartasun eta Elkarbizitza gaietarako Batzorde Bereziaren osaketa (16. or.).
- Europako Gaien Batzordearen osaketa (16. or.).

**E saila:**

**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da eskola-liburutegiak berritu eta egokitzeko plan bat igor dezan**

«IZQUIERDA UNIDA-EZKER BATUA DE NAVARRA» PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

«Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: “Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da eskola-liburutegiak berritu eta egokitzeko plan bat igor dezan”.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko azaroaren 15ean egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Hezkuntza eta Kultura Batzordean burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritako-arekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentarioek emendakinak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 1999ko azaroaren 16an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **MOZIOAREN EDUKIA**

“Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra” Parlamentuko Taldeak, Parlamentuko Erregelamenduan xedatuaren babespean, hurrengo mozioa aurkeztu du Hezkuntza Batzordean eztabaidatu eta bozka dadin:

Hezkuntzaren erreformak bultzatu duen ikaste ereduak oinarri du irakurtzeko egokiak diren baliabideak erabiltzea -edozein euskarritan-, eta ikasketen arlo guztietan lagun dezatela ikasten. Helburu horiek lortzeko ezin da soilik testu-liburua erabili. Garrantzitsua da ikasleen ikaste aktiboa kontuan hartzea, eta beharrezkoa da ikaste autonomia lortzeko estrategiak prestatu eta aurrera eramateko.

Informazio iturri guztiak baliatzea eta irakurleak trebatzea hezkuntza erreformaren bi zutabe dira; horrek guztiak eskatzen du baliabideak antolatuta izatea eta eskola-liburutegian zentralizatuta egotea. Liburutegi hori baliabide multimedialak

dituen zentrotzat hartu behar da, eta aldi berean izanen da liburutegi arrunt –inprimitutako materialer hornitua– eta hemeroteca eta mediateka-ikusentzunezko eta informatika-materialez hornitua.

Orain gutxi, Hezkuntza Departamentuak Nafarroako ikastetxe ez unibertstarioetan inkesta bat egin du eta zenbait ondorio aipagarriak dira. Ikastetxe gehienek dute liburutegia; hala ere, baliabide hori gaizki antolatuta dago, aurrekontua ez da nahikoa, informazio-bilaketa moduko zerbitzurik ez dute ematen, ez dute liburutegi-proiektu propiorik, haien jarduketak ez dira egoten ikastetxeko ikasketen proiektuetan eta ez dute loturarik kanpoko aldearekin ezta beste liburutegi batzuekin ere.

Eskola-liburutegi kontzeptua berraztertu egin behar da. Eskola-liburutegiak ezin du soilik izan irakurtzeko gela bat, ikasketan laguntzeko aukera ugari eskaintzen dituen baliabide baizik. Bultzatu eta berritu egin behar dugu eskola-baliabide hori, ikasle guztientzat -egoera soziokulturala alde batera utzita- hezkuntza-aukeren iturri izan dadin, eta, aldi berean, kanpokoek hainbat baliabide eta zerbitzu eskuragarri izan ditzaten, hala nola informazioa, jolasak eta etengabeko hezkuntza.

Eskola-liburutegiek behar dutena da hezkuntzan zerikusia duten instituzio eta gizarte-indar guztien laguntza tinko eta ilusioz betea, eta, egin behar dutena da horren kontzeptua aldatu eta zeregina bultzatu; izan ere, baldintzen erabilpena demokratikotu egiten du eta ikasleen berdintasuna ahalbidetu eta baita ikastetxeen gizarte-inguruarena, eskura jartzen baitie kultura eta etengabeko prestaketa.

Horiek horrela, hurrengo erabaki proposamena aurkeztu dugu:

1.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Biltzar honetara plan bat igor dezan, hiru hilabeteko epearen barruan, eskola-liburutegiak berritu eta egokitzeko egungo

hezkuntza sistemaren beharretara eta ezagupenak hobetzeko gizarte-itxaropenetara. Planak hurrengo alderdiak jaso beharko ditu:

– Ikastetxetako ikasketa- eta hezkuntza-proiektuetan sartzea.

– Ekintzak, helburu pedagogikoak eta laguntzak ezartzea.

– Fondo, instalazio eta ekipamendu egokien antolatzea.

– Diziplina anitzetako taldeak prestatzea ikastetxeetan.

– Kanpoko harremanak koordinatzea inguruko komunitatearekin eta beste liburutegi batzuekin.

– Aurrekontu baliabideak, egutegiak eta planaren ebaluazioa.

Iruñean, 1999 azaroaren 9an

Bozeramailea: José Miguel Nuin Moreno

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Komunitateko ingurugiroaren egoerari buruzko informazio orokorra igor dezan**

### *«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA» PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA*

«Nafarroako Demokraten Elkargunea» Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: “Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Komunitateko ingurugiroaren egoerari buruzko informazio orokorra igor dezan”.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko azaroaren 15ean egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentarioek emendakinak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 1999ko azaroaren 16an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **MOZIOAREN EDUKIA**

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak, Parlamentuko Erregelamenduen 192. artikuluen eta hurrengo babesean, hurrengo mozioa aurkeztu du Parlamentuko Mahaian.

Ingurugiro gaiei buruzko informazio eskubidea geroz eta zabalagoa da, eta horrelako datuak gero eta gehiago eskatzen dira.

Horri buruzko legediak ezartzen duenez -Europako zuzentarau bat aplikatzearen ondorio da legedi hori-, administrazio publikoek, aldizka-aldizka, ingurugiroari buruzko informazio orokorra eman behar dute; estatuek urtero eman behar dute informazio hori.

Argi eta garbi dago gure komunitatean, jendea oso arduratuta dagoela ingurugiro kontuekin; beraz, oso komenigarria izanen litzateke zehazki antolatzea ingurugiroari buruzko informazioa emateko behar hori.

Bestalde, zenbat eta zehatzagoa izan ingurugiroari buruzko ezagupena, orduan eta errazago baztertuko dira proposamen desegokiak.

Horregatik guztiagatik, hurrengo erabaki proposamena aurkeztu da Osoko Bilkuraren aurrean:

Nafarroako Gobernuak premiatzen da gure komunitateko ingurugiroari buruzko informazio orokorra eman dezan urtero. Informazio hori idatziz emanen zaio hala eskatzen duenari.

Iruñean, 1999ko azaroaren 10ean

Bozeramailea: Juan Cruz Alli Aranguren

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da kontrolak egin ditzan tatuajeak egiten diren lekuetan**

### *«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA» PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA*

«Nafarroako Demokratikoen Elkargunea» Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da kontrolak egin ditzan tatuajeak egiten diren lekuetan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko azaroaren 15ean egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentarioek emendakinak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 1999ko azaroaren 16an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **MOZIOAREN EDUKIA**

Nafarroako Demokratikoen Elkargunea Parlamentuko Taldeak, Parlamentuko Erregelamenduen 192. artikuluen eta hurrengo babesean, hurrengo mozioa aurkeztu du Parlamentuko Mahaian.

Aurreko legegintzaldian, Nafarroako Demokratikoen Elkarguneak galdera bat egin zion Nafarroako Gobernuari tatuajeen inguruko zenbait alderdiri buruz. Bai galderan, bai eta erantzunean ere,

horren guztiaren osasun-kontrol handiagoa behar zela aipatzen zen.

Berriki, Osasun Ministroaren agerraldi bat dela-eta, kezka hori piztu da jendearen artean. Orain, geroz eta tatuaje gehiago egiten dira eta baita belarritako eta zintzilikario gehiago jarri ere, eta horretarako gorputzean zuloak egin behar izaten dira. Horiek horrela, beharrezkoa da gure osasun sistemak horretan parte hartzea, horrelakoak erabiltzen dituztenen osasuna babestu behar baita eta sor daitezkeen kalteei aurre hartu.

Horregatik guztiagatik, hurrengo erabaki proposamena aurkeztu da Osoko Bilkuraren aurrean:

1.- Nafarroako Gobernuari eskatzen zaio aldizka egin ditzala beharrezko kontrolak, Osasun Departamentuaren bidez, gorputzean zuloak egiten dituzten lekuetan; hain zuzen ere, azalpean tatuajeak egin eta belarritako eta zintzilikarioak jartzen dituzten establezimenduetan. Horrela establezimendu horiek erregistratuta egonen dira. Orobat, establezimendu horietako arduradunen kualifikazioak agertu beharko du, eta kontrolatu egingen dira erabiltzen diren produktuak eta tresnak.

2.- Nafarroako Gobernuari eskatzen zaio arautu ditzala jarduera horien alderdi oro, eta, horrela, berma dadila herritarren osasuna.

Iruñean, 1999ko azaroaren 10ean

Bozeramailea: Juan Cruz Alli Aranguren

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako aurrezki kutxen zuzendaritza organoei buruzko foru lege proiektu bat igor dezan**

«IZQUIERDA UNIDA-EZKER BATUA DE NAVARRA» PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

«Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: “Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako aurrezki kutxen zuzendaritza organoei buruzko foru lege proiektu bat igor dezan”.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko azaroaren 15ean egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Foru Araubide Batzordean burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentarioek emendakinak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 1999ko azaroaren 16an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **MOZIOAREN EDUKIA**

“Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra” Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamendua- ren babesean hurrengo mozioa aurkeztu du Foru Araubide Batzordean eztabaidatzeko.

Aurrezki Kutxetako Zuzendaritza Organoei buruzko abuztuaren 2ko 31/1985 Legeak indargabetu eta ordezkatu egin du 2290/77 Errege Dekretua (Fuentes Quintana erreforma), zeina Konstituzioaren aurrekoa baitzen.

31/1985 Legeak zioen azalpenean dioenez, hurrengo printzipioak ditu oinarri: gobernu-organok demokratikotzea, demokratikotze hori eta kudeaketa eraginkorra batera joan daitezela, eta Estatuaren lurralde-antolaketaren printzipioen araberako araudi berria ezartzea.

Zioen azalpen horretan kuxak definitzen dira, eta definizio horren ondorio dira aipatu printzipioak. Zioen azalpenak horrela definitzen ditu kuxak: gizarte-enteak dira, eta jarduten duten lurraldea kontuan izaki, zuzendaritza organoen erabateko demokratikotzea behar dute eta, horrela, lurralde horretako bertako interes propioak adierazi behar dira.

13/1985 Legeak “gizarte-enteak” direla esaten du, eta hori funtsezkoa da; izan ere, Konstituzio

Auzitegiak ohartarazi duenez, Konstituzioak ez du ezartzen kuxek zein forma juridiko eta zer jabetza eredu izan behar duten, eta, beraz, Estatuaren oinarriko legeriak ezarri beharko du hori, Estatuaren eskumena baita “jarduera ekonomiko orokorra planifikatzea”.

Ia hamalau urte pasa dira 13/1985 Legea onetsi zenetik, eta Nafarroak -Hobetzeak aurrezki kutxen gaineko eskumena aitortzen dio- ez du egokitu oraindik 13/1985 Legeak ezarritakora aurrezki kutxen funtzionamendu eta gobernua. Eskumenak dituzten erkidego guztiek onetsi dituzte aurrezki kutxen zuzendaritza organoen demokratikotzeari buruzko legeak.

Horrela, Nafarroan, 13/1985 Legeak aipatzen dituen “bertako interes propioek” ez dute legebiderik aurkitu kutxen zuzendaritzek kontuan har ditzaten. Bertako interes propioak dira, adibidez, diru-ekarleenak, aipatu lege horrek berariaz aipatzen dituenen udal edo langileenak edo Nafarroan beharrezko eta bidezko jotzen denena.

Esan dugunez, 13/1985 Legeak aurrezki kutxen zuzendaritza organoen demokratikotzea aipatzen du eta gizarte-instituziotzat hartzen ditu kuxak, eta, gure ustez, horiek legearen oso alderdi positiboak dira. Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarrarentzat progresorako faktoreak dira eta demokrazian sakontzeko balio dute, gizarteari parte hartzeko aukera ematen diote; defizit politiko nabaria da Nafarroan hori garatuta ez egotea, eta defizit horrek erakusten duena da Nafarroan izan diren gobernu guztiei falta izan zaiela borondatea 13/1985 Legeak parte hartzeko ezartzen dituen bideak irekitzeko.

Nafarroan, kutxei buruzko foru legedia sortzeko saio bakarra izan da: Nafarroako aurrezki kutxen zuzendaritza organoei buruzko apirilaren 21eko 7/1987 Foru Legea; lege horrek egin zuen gauza bakarra izan zen 13/1985 Legearen zenbait xedapen ekarri: zenbait taldek zuzendaritza organoetan izan behar zuten ordezkari buruz, ordezkari-ehunekoak. Kopiatu egin zuen, halaber, erakundearen sortzaileak udalen ordezkari- tzak batzeko zuen sistema, eta hori Konstituzioaren aurkakoa zela esan zuen Konstituzio Auzitegiak, martxoaren 23ko 49/1988 epaiaren bidez.

Erakundearen sortzaileak udalen ordezkartzak batzeko zuen sistema hori Konstituzioaren aurka-koa zela-eta, 7/1987 Legeak ez zuen indarrean sartzerik, baldin eta ez bazen legea aldatzen Konstituzioaren aurkakoak ziren alderdi horiek kentzeko.

Horrela, bada, hamaika urte pasa dira Konstituzio Auzitegiak martxoaren 22ko 48/1988 epaia eta martxoaren 23ko 49/1988 epaia eman zituenetik, non auzitegiak ezarri zuen 13/1985 Legearen zein alderdi ziren, funtsean, oinarritzko eta baita ere zenbait xedapen Konstituzioaren aurkakoak zirela ere; Nafarroak, hala ere, dituen eskumenen barrenean ez du kutxei buruzko ezer arautu, eta, beraz, "bertako interes propio" garrantzitsu zenbaitek ez du parte hartzen zuzendaritza organoetan.

Botere publikoek urte guzti hauetan izan duten geldotasunaren aurrean, eta Nafarroako Gobernuak ez dionez ekiten, "Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra" Parlamentuko Taldeak hurrengo erabaki proposamena aurkeztu du:

– Nafarroako Gobernuak, hilabeteko epean, Nafarroako Aurrezki Kutxetako Zuzendaritza

Organoei buruko Foru Lege proiektu bat igorriko du Parlamentura, eta, besteak beste, hurrengo edukiak beharko ditu izan:

– Haiek hala nahi eta zilegi denez eta Estatuko oinarritzko legediak horrela aitortzen dielako, gizarte interesak ordezkatzan dituzten zenbait talde -diru-ezarleak, langileak, udalak- ordezkaturata egon daitezela aurrezki kutxetako zuzendaritza organoetan.

– Aldaketa eta demokratikotzea salbuespenik gabe egin dadila Nafarroako kutxetan, eta ez dadila figura juridiko berezirik erabili salbuespen horiek oinarritzeko. Antolaketa zehazta dadila, eta baita instituzio horien gobernua ere.

– Parlamentuak izan dezala eskumena kutxetako zuzendaritza organoak izendatzeko.

– Botere publikoek izan dezatela behar adina ordezkartzatza, aproposak baitira instituzio horien gizarte-izaera bermatzeko.

Iruñean, 1999ko azaroaren 12an

Bozeramailea: José Miguel Nuin Moreno

## Mendebaldeko Saharan 2000 urterako aurreikusita dagoen erreferendumaren aldeko adierazpen politikoa

### BOZERAMAILEEN BATZARRAK BERRETSIA

Nafarroako Parlamentuko Bozeramaileen Batzarrak, 1999ko azaroaren 15ean eginiko bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen, besteak beste:

**Lehen.**- Nazioarteko Elkartasun eta Elkarbizitza gaietarako Batzorde Bereziak, aurreko idazatian aipatu data berberean, onetsirik adierazpen politikoa, Mendebaldeko Saharan 2000 urterako aurreikusita dagoen erreferendumaren aldekoa, berrestea. Adierazpen politikoaren testua ondoan transkribatzen da:

"Mendebaldeko Saharan 2000 urterako aurreikusita dagoen erreferenduma egitearen aldekoa dela berresten du Nafarroako Parlamentuak, eta berretsi egiten du, halaber, Nazio Batuek Mendebaldeko Sahararako eginiko bake plana eta Houstoneko Hitzarmenak -Fronte Polisarioak eta Marokoko Gobernuak sinatu zuten ONUren babespean- marko egokia direla behin betiko konponbidea emateko Mendebaldeko Saharako herriaren helburu zilegiari. Aipatu planak eta

hitzarmenak ezartzen dutena da erreferendum bat egin dadila Mendebaldeko Sahara herriak askatasunez aukeratu ahal izan dezan, oztopo administratibo eta militarrik gabe, independente izan ala Maroko izan. Erreferenduma Nazio Batuen Erakundeak ezarritako datan egitea da -2000 urteko uztailearen amaiera aldera- bake prozesu osoaren oinarria eta Mendebaldeko Saharako gatazkaren konponbide zuzen eta iraunkorra.

Hassan II.a hil eta haren seme Mohamed VI.a jarri da errege, 78.000 errekurtsio ezarri eta botoemaileak identifikatzeko prozesua oztopatu nahi izan da, errepresio latza izan da azken asteotan Aaiun-en eta Saharako beste hiri batzuetan, Dril Basri Marokoko barne ministroa kargutik kendu dute. Gertakari horiek guztiak garrantzitsuak dira arazo honen bilakaerarako, eta arretaz behatu behar dugu hitzarmenak bete daitezela, eta bi aldeek hitzartutako zerbait betetzen ez bada salatu egin behar dugu, helburua, izan ere, erreferen-

duma 2000ko uztailaren amaiera aldera egitea baita.

Horrenbestez, Nazioarteko Elkartasun eta Elkarbizitza gaietarako Batzorde Bereziak premiazko deia egin nahi die Nazio Batuen Erakundeko idazkari nagusiari eta Segurtasun Kontseiluari, Europako Batasuneko instituzioei eta Espainiako Gobernuari, hain zuzen ere Mendebaldeko Saharako erreferenduma 2000 urtean egin dadin, eta bete daitezen ezarritako epeetan bi alderdiek hartutako konpromisoak –konpromiso horiek Segurtasun Kontseiluaren 1991ko ebazpe-

netan daude–. Ezarritako epeak betetzea alde biek, Fronte Polisarioak eta Marokoko Erresumak onartu zuten Houstoneko hitzarmenetan; hitzarmen haiek James Baker jaunak zuzendu zituen, zeina Nazio Batuen Erakundeko Kofi Anan jaunak bidali zuen pertsonalki.”

**Bigarrena.-** ONUren Idazkari Nagusiari, Europako Kontseiluko Lehendakariari eta Espainiako Gobernuko Lehendakariari helaraztea.

Iruñean, 1999ko azaroaren 16an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués



---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

## **Gutxienez % 33ko minusbaliotasuna eta gehienez % 65koa dutenentzako dauden baliabide eta hezkuntza programei buruzko galdera**

*ISABEL ARBONIES BERMEJO FORU PARLAMENTARIO ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko azaroaren 15ean egindako bilkuran, Isabel Arboniés Bermejo foru parlamentario andreak gutxienez % 33ko minusbaliotasuna eta gehienez % 65koa dutenentzako dauden baliabide eta hezkuntza programei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu da.

Iruñean, 1999ko azaroaren 16an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **GALDERAREN EDUKIA**

María Isabel Arboniés Bermejok, "Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra" Parlamentuko Taldeari atxikitako foru parlamentarioak, Parlamentuko Erregelamenduan xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaiten.

Nafarroako Gobernuak Gizarte Ongizate kontseilariak erantzuna eman zuen, % 33ko minusbaliotasuna baino handiagoa eta % 65ekoa baino txikiagoa duten 18 eta 65 urte bitarteko pertsonen kotizaziorik gabeko pentsioen antzeko oinarritzko errenta emateari buruz. Erantzun horren arabera, argi dago Nafarroako Gobernuak minusbaliatu batzuk baino ez dituela lagunduko: lan-tailerretan, eguneko zentroetan, edo lanbide heziketako zein helduarora pasatzeko prestakuntza programetan daudenak, hain zuzen ere.

Lan- eta hezkuntza-baliabideen onura jasotzen dutenen esku egon da "oinarritzko errenta", baina ez gainerakoen esku. Beraz, laguntzatik kanpo geratuko dira baliabide horietara iristerik izan ez duten nafarrak; horren ondorioz, bi aukera galduko dituzte. Gainera, nafar asko bide dago egoera horretan, eta aipatutako baliabideen onura ez jasotzeko, askotariko arrazoiak daude: adina

(50 urtez gaindikoak izatea), arrazoi geografikoak (haien herri eta eskualdeetan halako baliabiderik ez egotea), osasuna (lanbide batean jardun ezina) eta aspalditik baliabide egokiak ez egotea (hori da, esaterako, adimen gaixoen kasua).

Hainbat mila pertsonak osatzen duten gizatalde honek lan-baliabide bakarra du, egun: Elkar-kide; honek bi zentro ditu, Iruñerrian kokatuak, eta 85 pertsona ari dira haietan, gehi beste 15, Iruñeko Udaleko lorazaintza-programan ari direnak. Nafarroa osoko hainbeste lagunek doitze-programa pertsonal edo sozialik sekula izan ez dutenez gero, ez da harrizkoa une honetan 23 eskabide baino ez egotea. Argi dago denboraren iragaiteak eta baliabiderik ezak deuseztu egin dituela pertsona hauen itxaropenak.

Hori dela-eta, ondokoa jakin nahi dugu:

1. Zenbat dira % 33ko minusbaliotasuna baino handiagoa eta % 65ekoa baino txikiagoa eduki, eta 18 eta 65 urte bitarte dituzten pertsonak, Nafarroan?

2. 18 eta 65 urte bitarteko adina, eta % 33 eta % 65eko minusbaliotasuna duten pertsonetatik, zenbat daude ondokootan sarturik:

- hezkuntza-programa arautuetan
- lan-zentroetan
- eguneko-zentroetan

3. Hezkuntza programetan edo doitze-programa pertsonal eta sozialetan sartuta daudelako ziurtagiria eskatu behar bazaie guztiei, zer neurri hartu behar dira ezarritako beharrezkoak bete ezin dituzten gainerako pertsonen dagokienez?

4. Giza-talde honentzako baliabideak nola daude banatuta eta non daude, Nafarroan?

A) Hezkuntza programak (Lanbide Heziketakoa eta helduarora pasatzeko prestakuntza programak).

B) Lan-zentroak

Iruñean, 1999ko azaroaren 5ean.

C) Eguneko zentroak.

Foru parlamentarioa: María Isabel Arboniés Bermejo

## Gaixotasun zeliakoari buruzko galdera

### ISABEL ARBONIES BERMEJO FORU PARLAMENTARIO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko azaroaren 15ean egindako bilkuran, Isabel Arboniés Bermejo foru parlamentario andreak gaixotasun zeliakoari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1999ko azaroaren 16an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

#### GALDERAREN EDUKIA

María Isabel Bermejok, "Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra" Parlamentuko Taldeari atxikitako foru parlamentarioak, Parlamentuko Erregela-menduan xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Hesteetako patologia kronikorik ohikoena da gure herrian gaixotasun zeliakoa. Komerzializatutako elikagaien glutena ezin dute toleratu, eta, horren ondorioz, glutenik gabeko dieta estua egin behar dute.

Arazo larrienetako bat diagnostiko falta da, gaixotasuna eta haren sintomak ez baitira ezagunak. Gure herrian ia ez dago horri buruzko azterketa epidemiologikorik, eta, hortaz, nahiz eta esan 300 pertsonatik 1 zeliakoa dela, ez da oso datu fidagarria; adibidez, Italian, 1994an, 240tik 1 omen zen zeliakoa, eta, orain berriz, azterketak eguneratu eta batez bestekoa jaitsi egin da: 180 biztanletik 1 omen da zeliakoa.

Sintoma larriak izan eta diagnostikatuta dauden zeliakoen arazorik nagusiena hau da: ziur jakitea jaten dituzten elikagaiak erabat glutenik gabeak direla. Hori zaila da produktu manufakturatuetan, ez baitago elikadura-legedirik eguneroko produktuen etiketaturik arautzen duenik.

Produktuek ez dute analisi-kontrolik eta ez dago jakiterik ziur produktu horiek egokiak diren

ala ez; beraz, elikadura berezia behar izaten dute ez gaixoberritza izateko, gaixotasuna ez larrizteko edo heriotza ekiditeko. "Glutenik gabeko" elikagaiak oso dira garestiak; zenbaitetan hamar aldiz garestigo ere badira. Zeliakoek laguntza bereziak eskatzen dituzte elikagaietarako; bereziki, diru-sarrera eskasak dituzten familiek. Familia horiek, sarritan, ez diote dietari jarraitzen, nahiz eta, horrela, gaixotasuna larriagotzeko edo hiltzeko arriskua ere izan; izan ere, ezin dituzte ordaindu hain prezio garestiak.

Horiek horrela, hauxe jakin nahi da:

1.- Zer ikerketa epidemiologiko egin da Nafarroan patologia horren norainokoa ezagutzeko?

2.- Gaixo kopuruari buruzko datuak, sexua, adina eta abarren arabera; eskura dauden azken datuak.

3.- Zer araudi aplikatzen da Nafarroan elikagaien etiketatzeari buruz, glutena eta kontsumitzaileen osasunean eragina izan dezaketen beste zenbait substantziari dagokionez?

4.- Zer erakunde publikok analizatzen ditu elikagaiak, eta nola kontrolatzen da manufakturatutako elikagaien etiketan ezartzen dutena eta edukia bat datozela?

5.- Zeliakoek bizitza osorako duten tratamendua "glutenik gabeko" elikagai bereziak jatea da; zer laguntza ematen die Nafarroako Gobernuak zeliakoei?

6.- Nafarroako Gobernuak osasun sistemaren prestazioen artean sar ditzake elikagai berezi horiek, edo gutxienez oinarritzkoenak, bereziki diru-iturri eskasak izateagatik hain prezio garestiko tratamendua eraman ezin dezaketen gaixoenetzako. Ba al du Nafarroako Gobernuak horrelako asmorik?

Iruñean, 1999ko azaroaren 9an

Foru parlamentarioa: María Isabel Arboniés Bermejo

## Kirol-zelaia dauden lurak Corellako Udalari lagatzeari buruzko galdera

«IZQUIERDA UNIDA-EZKER BATUA DE NAVARRA» PARLAMENTUKO TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko azaroaren 15ean egindako bilkuran, «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentuko Taldeak kirol-zelaia dauden lurak Corellako Udalari lagatzeari buruz egindako galderaren bidera-pena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1999ko azaroaren 16an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### GALDERAREN EDUKIA

“Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra” Parlamentuko Taldeak, Parlamentuko Erregelamenduan xedatuaren babespean, hurrengo galdera aurkeztu du idatziz erantzun diezaioten:

Corellako kirol-zelaia dagoen lurra Nafarroako Gobernuarena da (José Luis Arrese kalea; 10.726 metro koadroko azalera du); aurreko ekainaren 14an, Nafarroako Gobernuak lur horiek Corellako Udalari laga zizkon, eta jarritako baldintza izan zen ezin zizkiola inori laga edo besterendu.

Ondasun higiezin hori udalarena izan zen lehenik; hurrengo, udalak, 1950eko urtarrilaren 28an Falange Española Tradicionalistari eman zion; geroago, Falange Española Tradicionalistak lurra Kultura Ministerioari laga zion eta ministerio

horrek, azkenik, Nafarroako Gobernuaren eskuetan jarri zuen (335/1986 Errege Dekretua).

Udalak adierazi duenez, ondasun higiezin hori besterentzeko asmoa du, eta lortzen duen diruarekin egin nahi duena da beste lurzati handiago bat eskuratu eta han jarri futbol zelaia eta beste kirol-instalazioak (igerilekua, tenis pistak, frontoia...).

Hala ere, Nafarroako Gobernuak 5.500.000 pezeta eskatzen ditu ondasun higiezin hori besterentzeko dagoen debeku hori kentzeko.

Kontuan izan behar dugu lur hori Corellako Udalarena izan zela lehenik, udalak dohainik laga ziola hurrengo Falangeri, Falangek Kultura Ministerioari, eta horrek, azkenik Nafarroako Gobernuari; halaber, kontuan hartu behar da besterendu eta lortutako dirua beste kirol instalazio publiko batzuetan inbertituko dela. Beraz, hauxe jakin nahi da.

– Nafarroako Gobernuak urriaren 18ko idazki baten bidez adierazi zuenez, ondasun hori besterentzeko debekua kentzea ez dator bat zuzenbidearekin. Zergatik?

– Nafarroako Gobernuak urriaren 18ko idazki horren bidez esaten du 5.500.000 pezeta ordaindu eta ondasun hori besterentzeko debekua kentzeko daitekeela. Zein dira arrazoiak?

Iruñean, 1999ko azaroaren 9an

Bozeramailea: José Miguel Nuin Moreno

## Zenbait ikastetxe publikotako leku beharrari buruzko galdera

*JUAN ANTONIO ANDION GASTON FORU PARLAMENTARIO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko azaroaren 15ean egindako bilkuran, Juan Antonio Andi6n Gast6n foru parlamentario jaunak zenbait ikastetxe publikotako leku beharrari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1999ko azaroaren 16an

Lehendakaria: Jos6 Luis Castej6n Garru6s

### GALDERAREN EDUKIA

Juan Antonio Andi6n Gast6nek, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentuko Taldeari atxikitako foru parlamentarioak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du Nafarroako Gobernuko Hezkuntza eta Kultura Departamentuak idatziz erantzun diezaion:

Foru Komunitateko zenbait ikastetxe publikok leku-arazoak dituzte, eta askotan behin-behineko irtenbideekin konpondu dira; adibidez, aurrefabrikatutako moduluak jarri izan dira, eta horiek behin betiko ez baina luzarorako izaten dira. Aipatu neurri horiek egoera berezietarako soilik izan daitezten, kontuan izan behar da obrak planifikatu beharra dagoela; beraz, hona hurrengo galdera hauek.

– Zer behar antzeman ditu Nafarroako Gobernuak ikastetxe publikoetan?

– Zer handitze eta/edo eraikitze obra ditu planifikatuta Departamentuak ikasleak behar bezala eskolatzeko ikastetxe horietan?

Iruñean, 1999ko azaroaren 9an

Foru parlamentarioa: Juan Antonio Andi6n Gast6n

## Erresonantzia magnetikoa egiteko itxaron zerrendei buruzko galdera

*ELENA TORRES MIRANDA FORU PARLAMENTARIO ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko azaroaren 15ean egindako bilkuran, Elena Torres Miranda foru parlamentario andreak erresonantzia magnetikoa egiteko itxaron zerrendei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1999ko azaroaren 16an

Lehendakaria: Jos6 Luis Castej6n Garru6s

### GALDERAREN EDUKIA

Elena Torres Mirandak, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentuko Taldeari atxikitako foru parlamentarioak, Parlamentuko Errege-

lamenduko 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du erresonantzia magnetikoa egiteko itxaron zerrendei buruz, idatziz erantzun diezaioten:

– Zenbat paziente ari da itxaroten proba horiek egiteko?

– Hitzordua emaniko zenbat paziente dago eta zenbat itxaron behar dute hitzordua ematen zaientetik?

– Zer neurri aurreikusi ditu Osasun kontseilari-tzak espezialitate horretan itxarote-epeak laburtzeko?

Iruñean, 1999ko azaroaren 9an

Foru parlamentarioa: Elena Torres Miranda

## Nafarroako Administrazio Auzitegian aurkeztutako espediente kopuruari buruzko galdera

JORGE MORI IGOA FORU PARLAMENTARIO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko azaroaren 15ean egindako bilkuran, Jorge Mori Igoa foru parlamentario jaunak Nafarroako Administrazio Auzitegian aurkeztutako espediente kopuruari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1999ko azaroaren 16an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### GALDERAREN EDUKIA

Jorge Mori Igoak, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentuko Taldeari atxikitako foru

parlamentarioak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du Nafarroako Gobernuoko Toki Administrazio Departamentuak idatziz erantzun diezaion:

– Zenbat espediente aurkeztu zaizkio Nafarroako Administrazio Auzitegiari azken zortzi urteotan? Urte bakoitzean zenbat aurkeztu diren esan, eta adierazi zenbat ebatzi diren eta zenbat dauden oraindik ebatzi gabe.

– Zer iritzi du Nafarroako Gobernuak Nafarroako Administrazio Auzitegiaren funtzionamenduari buruz? Funtzionamendu horri dagokionez, zer aurreikusi du?

Iruñean, 1999ko azaroaren 9an

Foru parlamentarioa: Jorge Mori Igoa

## Toki administrazio bitarteko idazkari eta kontu-hartzaileei buruzko galdera

JORGE MORI IGOA FORU PARLAMENTARIO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko azaroaren 15ean egindako bilkuran, Jorge Mori Igoa foru parlamentario jaunak toki administrazio bitarteko idazkari eta kontu-hartzaileei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1999ko azaroaren 16an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### GALDERAREN EDUKIA

Jorge Mori Igoak, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentuko Taldeari atxikitako foru

parlamentarioak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du Nafarroako Gobernuoko Toki Administrazio Departamentuak idatziz erantzun diezaion:

– Aurreikusi al du Nafarroako Gobernuak toki administrazio bitarteko idazkari eta kontu-hartzaileen kontua konpontzea?

– Arazo horrentzat izanen da soilik konponbide hori ala Nafarroako toki administrazioaren aldaketa sakonago baten barrenean egingen da?

Iruñean, 1999ko azaroaren 9an

Foru parlamentarioa: Jorge Mori Igoa

## Toki entitateen administrazio mapari buruzko galdera

*JORGE MORI IGOA FORU PARLAMENTARIO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko azaroaren 15ean egindako bilkuran, Jorge Mori Igoa foru parlamentario jaunak toki entitateen administrazio mapari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1999ko azaroaren 16an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **GALDERAREN EDUKIA**

Jorge Mori Igoak, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentuko Taldeari atxikitako foru parlamentarioak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du Nafarroako Gobernuo Toki Administrazio Departamentuak idatziz erantzun diezaion:

– Toki entitateez denaz bezainbatean, zer iritzi du Nafarroako Gobernuak Nafarroak egun duen administrazio mapari buruz?

Iruñean, 1999ko azaroaren 9an

Foru parlamentarioa: Jorge Mori Igoa

## Toki entitateek gazteri programak aurrera eramateari buruzko galdera

*CAROLINA CASTILLEJO HERNANDEZ FORU PARLAMENTARIO ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko azaroaren 15ean egindako bilkuran, Carolina Castillejo Hernández foru parlamentario andreak toki entitateek gazteri programak aurrera eramateari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1999ko azaroaren 16an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **GALDERAREN EDUKIA**

Carolina Castillejo Hernándezek, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentuko Taldeari atxikitako foru parlamentarioak, Parlamentuko

Erregelamenduko 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du Nafarroako Gobernuo Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Departamentuak idatziz erantzun diezaion:

1999ko Aurrekontu Orokorretan, programak deskribatzerakoan, Nafarroako Gobernuak helburutzat hartzen zuen toki entitateei laguntzak ematea gazteri programak aurrera eraman zitzaizkien.

– Zein da helburu horren betetze maila?

– Zer laguntza edo dirulaguntza eman dira Aurrekontutik helburu horrekin, eta zenbatekoak izan dira?

Iruñean, 1999ko azaroaren 9an

Foru parlamentarioa: Carolina Castillejo Hernández

## Gazteei argibideak emateko bulegoei buruzko galdera

CAROLINA CASTILLEJO HERNANDEZ FORU PARLAMENTARIO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko azaroaren 15ean egindako bilkuran, Carolina Castillejo Hernández foru parlamentario andreak gazteei argibideak emateko bulegoei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1999ko azaroaren 16an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### GALDERAREN EDUKIA

Carolina Castillejo Hernándezek, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentuko Talde-

ari atxikitako foru parlamentarioak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du Nafarroako Gobernuako Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Departamentuak idatziz erantzun diezaion:

– Nafarroako Aurrekontu Orokorrek ezarritako helburuen artean Gazteei Argibideak emateko Bulegoa martxan jartzea zegoen; zer betetze maila du helburu horrek?

Iruñean, 1999ko azaroaren 9an

Foru parlamentarioa: Carolina Castillejo Hernández

---

## Gazteriarentzako Departamentuarteko Batzordearen eragingarritasunari buruzko galdera

CAROLINA CASTILLEJO HERNANDEZ FORU PARLAMENTARIO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko azaroaren 15ean egindako bilkuran, Carolina Castillejo Hernández foru parlamentario andreak Gazteriarentzako Departamentuarteko Batzordearen eragingarritasunari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1999ko azaroaren 16an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### GALDERAREN EDUKIA

Carolina Castillejo Hernándezek, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentuko Taldeari atxikitako foru parlamentarioak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondokoek

xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du Nafarroako Gobernuako Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Departamentuak idatziz erantzun diezaion:

lazio urtean, Nafarroako Gobernuaren ustez, gazteentzako politikak koordinatu egin behar ziren; hain zuzen ere, Gazteriarentzako Departamentuarteko Batzordeak egin beharreko egintzen bidez.

– Zer eragingarritasun maila izan du batzorde horrek?

– Zenbatetan bildu da eta zer helburu izan ditu? Zein izan zen helburu horien betetze maila?

Iruñean, 1999ko azaroaren 9an

Foru parlamentarioa: Carolina Castillejo Hernández

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

## **Nazioarteko Elkartasun eta Elkarbizitza gaietarako Batzorde Bereziaren osaketa**

### LEHENDAKARIA

Juan José Lizarbe Baztán (SPN)

### BATZORDEKIDEAK

Alberto Catalán Higuera jauna (UPN)  
Alfredo Jaime Irujo jauna (UPN)  
Carlos Cristóbal García jauna (SPN)  
Joxe Fernando Barrena Arza jauna (EH)  
Shanti Kiroga Astiz jauna (EH)  
José Miguel Nuin Moreno jauna (IU-EB)  
Juan Cruz Alli Aranguren jauna (NDE)  
Begoña Errazti Esnal andrea (EA/EAJ-PNV)

---

## **Europako Gaien Batzordearen osaketa**

### MAHAIA

Lehendakaria  
Francisco Javier Morrás Iturmendi jauna (UPN)  
Lehendakariordea  
Isabel Delgado López andrea (SPN)  
Idazkaria  
Félix Puyo Rebollo jauna (EH)

### BATZORDEKIDEAK

M<sup>a</sup> Isabel Beriáin Luri andrea (UPN)  
Luis Campoy Zueco jauna (UPN)  
Pedro Eza Goyeneche jauna (UPN)  
Alfredo Jaime Irujo jauna (UPN)  
José Ramón Urdiáin Martínez jauna (UPN)  
Juan José Lizarbe Baztán jauna (SPN)  
Elena Torres Miranda andrea (SPN)  
Joxe Fernando Barrena Arza jauna (EH)  
Félix M<sup>a</sup> Taberna Monzón jauna (IU-EB)  
Juan Cruz Alli Aranguren jauna (NDE)  
José Manuel Goikoetxea Askorbe jn. (EA/EAJ-PNV)